

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZIGOITIKO UDALA

**Onespena ematea Durako BHIko Iturribero Guraso Elkarteak eta Zigoitiko Udalak sinatutako lankidetzaren hitzarmenari, Bidelaguna programan parte hartzen duten Zigoitiko ikasleen garraio gastua diruz laguntzeko**

Zigoitiko Udalak, 2019ko azaroaren 21ean egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen onespena ematea Durako DBHIko Iturribero Guraso Elkartearekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenari, Bidelaguna programan parte hartzen duten Zigoitiko ikasleen garraio gastua diruz laguntzeko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

#### ERANSKINA

DURAKO BHIKO ITURRIBERO GURASO ELKARTEAREN ETA ZIGOITIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMEN ADMINISTRATIBOA, BIDELAGUNA PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN ZIGOITIKO IKASLEEN GARRAIO GASTUA DIRUZ LAGUNTZEKO

Ondategi, 2019ko abenduaren 4a.

#### BILDURIK

Alde batetik, IKER BERROSTEGUIETA GONZÁLEZ, 44682978G NAN zenbakiduna, lehen-dakari gisa, DURAKO DBHIKO ITURRIBERO GURASO ELKARTEAREN izenean eta ordezkari gisa.

Bestetik, JAVIER GORBEÑA GARCÍA, ZIGOITIKO Udaleko alkate-lehendakaria, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenaren, 21.1.b). artikulua araberaren duen ordezkari arituz, udalbatza honen 2019ko azaroaren 21eko ohiko bilkuraren erabakiaren bidez, hitzarmen hau sinatzeko baimendun gisa.

Bi aldeek egintza hau egiteko aski eta beharrezko lege gaitasuna aitortu diote elkarri, jarraian azalduko diren aurrekariak kontuan hartuz:

#### AURREKARIAK

LEHENENGOA. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan D hezkuntza ereduak aukera duten Zigoitiko Udaleko ikasleak Durako Ikasbidea IPIra doaz, eremu zentro erreferentea delako.

BIGARRENA. Durako Ikasbidea IPIk, 2018-2019 ikasturteaz geroztik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren dirulaguntza jasotzen du BIDELAGUNA programa garatzeko: eskolako ordutegiz kanpoko laguntza lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan.

Programa hori eskola atzerapena edo zailtasunak dituzten ikasleentzat da nagusiki, gizarte desabantaila egoeran daudelako batik bat, eta helburua eskolako arrakasta indizea hobetzea da.

HIRUGARRENA. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren dirulaguntzak eskolako ordutegiz kanpoko laguntza hori ematen duten irakasleen kostua bakarrik betetzen du. Ez du finantzatzen ikasleen garraioa.

Programa horretan parte hartzen duten herriko ikasleek beren gain hartu behar dute etxera bueltatzeko garraioaren kostua, ohiko eskola garraioa ezin dutelako erabili. Izan ere, programaren eskolak eskolako ordutegiz kanpo ematen dira.

LAUGARRENA. 3/2005 Legearen 22. artikulua arabera (otsailaren 18koa, Haur eta Nerabeak Zaindu eta Babesteari buruzkoa), neska-mutil guztiek hezkuntza prestakuntza jasotzeko eskubidea dute. Prestakuntza hori, funtsean, familia eta gizarte esparruan, nahiz ikastetxeetan emango zaie. Bestalde, Legearen 46. artikulua ezartzen du herri administrazioek, neska-mutilen hezkuntzan eta prestakuntzan familiek beren erantzukizunak modu egokian garatzen dituztela bermatu behar dutela, eta haurraren garapenean eragiten duten arloetan dauden zerbitzu guztietarako sarbidea erraztu beharko dute. Horrela, prebentzio ekintzari lehentasuna emango diote, familiaren integrazioan laguntzeko.

BOSGARRENA. Desberdintasunen prebentzio eta konpentsazio hezkuntza sustatzeko, neska-mutil guztien gizarteratzeko eskubidea bermatzeko, eta Zigoitiko neska-mutil guztiak hezkuntza sare publikoan sartzen direla bermatzeko, zenbait laguntza ezarri dira Zigoitiko ikasleen familientzat, Durako Ikasbidea IPI n matrikulatzen badira eta BIDEFLAGUNA programan parte hartzen badute.

#### ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

LEHENENGOA. Abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 42.6. artikulua, gizarte zerbitzuen arloan hauxe ezartzen du: "Udalek eskumena izango dute, bakoitzak bere udalerrian, arriskuan dauden adingabeak babesteko, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko arloan indarrean dagoen araudiak esleitzen dizkienak".

Zentzu berean, aipatutako lege horren 22.1.3. artikulua ezartzen du udalaren eskumenak izango direla Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Katalogoan jasotan dauden prestazioak eta zerbitzuak, arlo hauetan:

"1.3. Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua".

BIGARRENA. Otsailaren 18ko 3/2005 Legearen, Haur eta Nerabeak Zaindu eta Babesteari buruzkoaren, 104.3. artikulua, honako hauek ematen dizkie udalei, beren eskumenen lurralde esparruan:

"b) Arriskuan dauden haur eta nerabeak zaintzeko beharrezko irizten zaien zerbitzu eta zentroak zuzenean edo zeharka kudeatzea".

HIRUGARRENA. Durako Ikasbidea IPIko Iturribero Guraso Elkarteak xede hauek jasotzen ditu bere estatuetan:

"- Ikasleen zinezko eskubide berdintasunaren printzipioa erabat gauza dadin sustatzea, arrazoi ekonomiko, ideologiko nahiz konfesionalak, arraza edo sexua direla medio inor diskriminatu gabe.

— Gurasoen eta irakasleen arteko lankidetzeta eta harreman onak sustatzea".

LAUGARRENA. Urriaren 1eko 40/2015 Legearen, Sektore publikoaren araubide juridikoaren, 47.1. artikulua honela definitzen ditu hitzarmenak: "ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera. Ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak".

BOSGARRENA. 40/2015 Legearen 48.3. artikulua hauxe ezartzen du: "Hitzarmenak sinatuz erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezten lagundu beharko du, eta aurrekontu egonkortasunerako eta finantza jasangarritasunerako legeria bete". Halaber, hitzarmenak dirulaguntza bat ekartzen badu, azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzei buruzkoa, eta hala badagokio, aplikatzekoa den autonomiako arautegia bete beharko ditu.

SEIGARRENA. Azkenik, 40/2015 Legearen 50.1. artikulua hauxe ezartzen du: "...hitzarmenak justifikazio memoria bat beharko du, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta ego-kitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelako izaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea".

Egin nahi dena gauzatze aldera, aipatutako aldeek honako klausula hauek onartu dituzte:

#### KLAUSULAK

**LEHENENGOA.** Hitzarmen honen xedea da Durako Ikasbidea IPI n matrikulatuta dauden eta hezkuntza indartzeko BIDELAGUNA programan parte hartzen duten Zigoitiko ikasleek eskolako ordutegiz kanpo duten garraioaren gastua ordaintzea.

**BIGARRENA.** Hitzarmena gauzatu ahal izateko, alde sinatzaileek betebeharrak hauek hartu dituzte beren gain:

##### • DURAKO IKASBIDEA IPIKO ITURRIBERO GURASOEN ELKARTEA:

1. BIDELAGUNA programan parte hartuko duten Zigoitiko ikasleen zerrenda aurkeztuko du ikasturtea hastean, betiere urriaren 15a baino lehen. Zerrendarekin batera, programako saioen egutegia, ikasturte bakoitzerako aukeratutako garraio enpresa, eta gastuaren hasierako aurreikuspena aurkeztuko ditu. Hala badagokio, beste administrazio edo erakunde publiko batzuetatik, nahiz erakunde edo pertsona pribatuengandik garraio zerbitzua ordaintzeko lor ditzaketen diru sarreraren aurreikuspena ere bai.

2019/2020 ikasturterako, eta salbuespenez, aipatutako dokumentazioa hitzarmen hau gauzatu aurretik aurkeztuko da, eta betiere 2019ko abenduaren 30a baino lehen.

2. Hasieran aurkeztutako programaren diseinuan egin nahi duen edozein aldaketa Zigoitiko Udalarik jakinaraztea, aldaketa hori egin aurretik, onar dezan.

3. Ikasturte bakoitza amaitutakoan, betiere urte bakoitzaren ekainaren 30a baino lehen, justifikazio agiri hauek aurkeztea:

– Jardueren memoria, ikasturtean zehar benetan egindako saioen egutegia eta Zigoitian bizi diren ikasleen asistentzia adieraziz.

– Zigoitian bizi diren ikasleen garraio zerbitzuaren gastu eta sarrerak justifikatzen dituen memoria ekonomikoa. Barne hartuko ditu:

1. Gastuen zerrenda zehatza, hartzekoduna, zenbatekoa, faktura zenbakia edo horren balio-kidea den frogagiria, jaulkipen data eta ordainketa data adieraziz. Hasierako gastuen aurreikuspenarekiko gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.

2. Programa finantzatu duten sarreraren (kuotak, matrikulak...) edo dirulaguntza publiko edo pribatuaren zerrenda zehatza.

3. Fakturaren eta ordainagiriaren kopia taxia erabiltzen bada, edo auto partikularrak egindako kilometro kopurua (0,29 euro ordainduko dira kilometroko, programan parte hartzen duten ikasleen senideetako baten ibilgailuz badoaz).

4. Jasotako dirulaguntza itzultzea, hitzarmen honetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak ez badira betetzen, edo azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorraren, dirulaguntzei buruzkoaren, 37. artikuluan, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren, dirulaguntzen lege orokorraren arautegia onartzen duenaren, 91-93 artikuluetan dirulaguntzak itzultzeko adierazitako arazoietako baten barruan badago.

##### • ZIGOITIKO UDALA:

1. Garraio zerbitzua BIDELAGUNA programan parte hartzen duten Zigoitiko ikasleei emateak dakarren defizita finantzatzea: eskolako ordutegiz kanpoko laguntza lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, ekitaldi ekonomiko bakoitzean eta hitzarmen honen indarraldian Udalak finkatzen duen aurrekontu aplikazioaren kontura.

Defizit gisa hartzen da aipatutako garraio zerbitzua emateak ekartzen dituen sarreraren eta gastuen arteko emaitza negatiboa.

Gehienez diruz lagundu daitekeen zenbatekoa hau izango da: ekitaldi ekonomiko bakoitzean indarrean dagoen udal aurrekontuko aplikazioan dagoen aurrekontu zuzkidura. Zenbateko hori urtero zehaztuko da, hau kontuan izanik: BIDELAGUNA programan parte hartzeko garraio zerbitzuaren sarreren eta gastuen hasierako aurreikuspena (Durako IKASBIDEA IPIko ITURRIBERO GURASOEN ELKARTEAK aurkeztuko du).

2. Zigoitiko Udalak, aipatutako dirulaguntzaren aurretiko ordainketa izapidetuko du ikasturte bakoitzerako, justifikatu aurretik, programa egiteko beharrezkoa den finantzazio gisa. Ez da bermerik ezarri behar.

Udalaren dirulaguntza bateragarria izango da beste administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik jasotako dirulaguntza, laguntza edo sarrerekin.

HIRUGARRENA. Hitzarmena eta sinatzen duten alderdiek hartutako konpromisoak gauzaten direla kontrolatuko duen organoa batzorde bat izango da. Batzorde hori, Zigoitiko Udala osatzen duten udal talde bakoitzaren ordezkari batek, eta Durako IKASBIDEA IPIko ITURRIBERO GURASO ELKARTEKO ordezkari kopuru berak osatuko dute.

LAUGARRENA. Hitzarmen honetan jasotzen den edozein baldintza aldatzeko, sinatzen duten alderdi guztiek ados egon beharko dute.

BOSGARRENA. Hitzarmen honen iraupena 4 urtekoa izango da, sinatzen den egunetik aurrera. Aipatutako epe hori amaitu aurretik, hitzarmen hau sinatzen duten alderdiek aho batez erabaki dezakete luzatzea, beste 4 urtetarako, edo iraungi arte, 40/2015 Legearen 49.h) artikuluan ezarritakoaren arabera.

SEIGARRENA. 40/2015 Legearen 51. artikuluan ezarritakoaren arabera, hitzarmen hau ezeztatzeko arrazoiak izango dira:

1. Indarraldia amaituta, luzatzea ez bada erabaki.

2. Sinatu duten aldeek aho batez adostea.

3. Sinatzaileek hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea. Kasu horretan, edozein alde errekerimendua igorri eta jakinarazi ahalko dio bete beharrekoa bete ez duen aldeari, epe jakin batean bete gabetzat jotako konpromiso eta betebeharrak bete ditzan. Errekerimendu horren berri eman beharko zaio hitzarmenaren jarraipena, zaintza eta kontrolaz arduratuko den organoari. Epe hori igarotakoan ez betetzen jarraitzen bada, betetzen ez duen alderdiari jakinaraziko zaio, eta hitzarmen hau ezeztatutzat hartuko da. Horrez gain, kalte-ordaina ere ezar daiteke, eragindako kalteengatik.

4. Epaia batek hitzarmena baliogabetzat jotzea.

5. Indarreko legean ezarritako beste edozein arrazoiengatik.

ZAZPIGARRENA. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenaren pean jarriko dituzte alde biek sor litezkeen auzigai guztiak.

ZORTZIGARRENA. Hitzarmen honetan jasotzen ez diren lege eta funtzionamendu alderdi guztietan, Udal honen kultura, kirol edota gizarte jardueren antolaketa ordaintzeko dirulaguntzen berariazko oinarri arautzailean, azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorrean, dirulaguntzei buruzkoan, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, Dirulaguntzen Lege Orokorraren arautegia onartzekoan, ezarritakoa aplikatuko da.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmen honen bi ale sinatzen dute, goian adierazitako tokian eta egunean.

Ondategi, 2020ko urtarrilaren 8a

*Alkatea*

*JAVIER GORBEÑA GARCÍA*